Udala

Euskadiko Udalen Elkartearen **BULETIN MONOGRAFIKOA**

179 | 2026ko azaroa

EUDEL



Udal Finantzaketa

Udalen partaidetza zerga itunduetan. 2026-2027

EUDEL
EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

www.eudel.eus
Harpidetu EUDELen newsletterrean

udala
Euskadiko Udalen Elkartearen BULETIN MONOGRAFIKOA
179 | 2026ko azaroa

Ercilla 13 | 48009 BILBAO
Tel.: 94 423 15 00
e-maila: eudel@eudel.eus



Euskadiko Udalerrien ordezkariak

Herri Dirubideen Euskal Kontseilua

Esther Apraiz, DERIOko alkatea (EUDELeko elkarteburua)
Nagore Alkorta, AZPEITIko alkatea (EUDELeko elkarteburuordea)
Nati López de Munain, BURGELUko alkatea (EUDELeko Batzorde Eragileko kidea)

Finantzen Lurralde Kontseiluak

Arabako Toki Administrazioaren eta Finantzen Lurralde Kontseilua

Javier Gallego, ERRIBERAGOITIko alkatea
Jon Escuza, OKONDOko alkatea
Ibernalo Basterra, CAMPEZO/ KANPEZUko alkatea
Raúl García, LAGUARDIAko alkatea
Erika Letamendi, DONEMILIAGAko alkatea
Juan Ignacio Armentia, VITORIA-GASTEIZko zinegotzia
Xabier Álvarez de Arcaya, URKABUSTAIZko alkatea

Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseilua

Carlos Urgoiti, BILBOko zinegotzia
Ainhoa Salterain, AMOREBIETA-ETXANOko alkatea
Garbiñe Sáenz de Buruaga, ISPASTERko alkatea
Mikel Urrutia, ABADIÑOko alkatea
Miguel Ángel Gómez, TRAPAGARANgo alkatea

Gipuzkoako Finantzen Kontseilua

Aizpea Otaegi, ERRENTERIAko alkatea
Adur Ezenarro, ORDIZIAko alkatea
Iñaki Ostolaza, ZUMAIAko alkatea
Kerman Orbegozo, DONOSTIAko zinegotzia
Jon Iraola, EIBARko alkatea

Aurkibidea

Euskal Foru Ogasunen zerga itunduen diru-bilketa 4
Diru-bilketaren 2026ko aurreikuspena (aurrelikidazioa). 4
2027rako aurrekontu-aurreikuspena 6
Euskal Foru Ogasunen zerga itunduen diru-bilketaren bilakaera (2006 – 2027) 8
Egokitzapenerako Funts Orokorraren 2027ko ekitaldirako behin-behineko zenbatekoa zehaztea. . . . 9
2027ko ekitaldirako koefiziente horizontalak zehaztea. 10

Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistema finantzatzeko Estatutik datozen baliabideen banaketa. 11

Udal Finantzaketarako Foru Funtsak 13

Arabako toki-erakundeak. 16
2026ko aurrelikidazioa. 16
2027rako aurrekontua. 17

Bizkaiko udalak 18
2026ko aurrelikidazioa. 18
2027rako aurrekontua. 19

Gipuzkoako udalak 22
2026ko aurrelikidazioa. 22
2027rako aurrekontua. 23

Udal Finantzaketako Foru Funtsak, biztanleko, eurotan adierazita. 24

I. ERANSKINA. Araba: TEFFFren banakako kopuruak. 27

II. ERANSKINA. Bizkaia: Udalkutxaren banakako kopuruak. 30

III. ERANSKINA. Bizkaia: Gizarte Zerbitzuen Funtsaren banakako kopuruak. 35

IV. ERANSKINA. Gipuzkoa: Udalen Finantzaketarako Foru Funtsaren banakako kopuruak. 40

HERRI DIRUBIDEEN EUSKAL KONTSEILUA

Euskal Foru Ogasunen zerga itunduen diru-bilketa

Joan den urriaren 15eko Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan onetsi ziren, besteak beste, zerga itunduen diru-bilketaren 2026ko aurreikuspena eta 2027rako aurrekontu-aurreikuspena, 2027rako koefiziente horizontalen eta Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari egin beharreko ekarpenen zehaztapena eta 2027rako Egokitzapenerako Funts Orokorraren behin-behineko zenbatekoa.

DIRU-BILKETAREN 2026KO AURREIKUSPENA (AURRELIKIDAZIOA)


Oro har, aurreikusita dago 2026an zerga itunduen diru-bilketa hasierako aurreikuspena baino % 1,11 handiagoa izango dela. Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak honako kopuru hauek onetsi ditu, zerga itunduen diru-bilketaren itxiera-aurreikuspenari dagokionez: (**1. taula**)

1. Taula

	2026ko aurrekontua €	2026rako bilketaren aurreikuspena €	Aldea €	%
Araba	3.252.595.538	3.286.991.057	34.395.519	% 1,06
Bizkaia	10.891.001.914	10.997.323.646	106.321.732	% 0,98
Gipuzkoa	6.986.881.548	7.080.688.099	93.806.551	% 1,34
EAE guztira	**21.130.479.000**	**21.365.002.802**	**234.523.802**	**% 1,11**

Itxiera-aurreikuspena 2026ko aurrekontua baino % 1,11 handiagoa da; Araban hasierako aurrekontua baino **% 1,06** handiagoko diru-bilketa aurreikusten da, Bizkaian **% 0,98** handiagoa eta Gipuzkoan hasierako aurrekontua baino **% 1,34** handiagoa.

1. Grafikoa: Zerga itunduen diru-bilketa (milioi eurotan)



2027RAKO AURREKONTU-AURREIKUSPENA

Halaber, zerga itunduen 2027rako diru-bilketaren aurreikuspenak erabaki ziren. Hurrengo taulan, 2027rako diru-bilketako aurrekontu-aurreikuspen horiek ageri dira, 2026ko aurrekontuarekin alderatuta. (**2. taula**)


2. Taula

	2026ko aurrekontua €	2027rako aurrekontua €	Aldea €	%
Araba	3.252.595.538	3.489.397.639	236.802.101	% 7,28
Bizkaia	10.891.001.914	11.711.091.670	820.089.756	% 7,53
Gipuzkoa	6.986.881.548	7.481.257.543	494.375.995	% 7,08
EAE guztira	**21.130.479.000**	**22.681.746.852**	**1.551.267.852**	**% 7,34**

2027rako diru-bilketa % 7,34 handitzea aurreikusi da, 2026ko aurrekontuarekin alderatuta. Lurraldeka, honela banatuta dago: % 7,28 Araban, % 7,53 Bizkaian eta % 7,08 Gipuzkoan.


2027rako diru-bilketaren aurreikuspena **22.682 milioi eurokoa** da, 2026ko hasierako aurreikuspena baino **% 7,34** handiagoa.

2. Grafikoa: Zerga itunduen diru-bilketa (milioi eurotan)



EUSKAL FORU OGASUNEN ZERGA ITUNDUEN DIRU-BILKETAREN BILAKAERA (2006 – 2027)

3. Grafikoa: Zerga itunduen diru-bilketaren bilakaera (milioi eurotan)



Aurreko grafikoan, zerga itunduetan 2006tik 2027ra bitartean bildutako diruaren bilakaera ikus dezakegu. Argitu beharra dago 2026ko datua aurrelikidazioari dagokiola eta 2027koa diru-bilketaren aurrekontuari eta gainerako ekitaldietako likidazioei dagozkiela.

2008.eta2009.urteetan,krisiekonomikoaren ondorioz, aldi horretako kopururik txikienak bildu ziren; zehazki, **2009. urtean** izan zen **diru-bilketarik** txikiena: **10.792 milioi euro**. Diru-bilketan jasandako eragin negatibo hori Udal Finantzaketarako Foru Funtsen murrizketan nabaritu zen, arrisku partekatuaren printzipioa aplikatu izanaren ondorioz.

2013ko ekitalditik aurrera, suspertze aldi bat hasi zen, diru-bilketaren igoera progresibo eta jarraituarekin. 2017az geroztiko goranzko susperraldi nabarmenak 2019ra arte iraun zuen. 2020ko ekitaldian, berriz, COVID-19ak eragindako pandemiaren

ondorio ekonomikoek zerga-bilketa urritu zuten, baina 2021az geroztik susperraldi garrantzitsua iritsi zen. Onetsitako datuen arabera, **2026 eta 2027rako 21.365 eta 22.681 milioi euroko diru-bilketa aurreikusten da, hurrenez hurren**.

2027KO EKITALDIRAKO EGOKITZAPENERAKO FUNTS OROKORRA

Foru Aldundiek ekarpen-koefiziente horizontaletan oinarrituta, egiten dizkiote ekarpenak Eusko Jaurlaritzari, eta ez diru-bilketarekiko guztiz proportzionalki. Lurralde bakoitzeko ekarpen-koefizientearen eta bilketa-koefizientearen arteko aldeak lurralde-disfuntzioak eragiten ditu finantzaketan.

Egokitzapenerako Funts Orokorrak (EFO) disfuntzio horiek leuntzeko aukera ematen du, eta bermatzen du Euskal Autonomia Erkidegokoak lurralde historiko bakoitzerako diru-bilketa osoan duen parte-hartze erlatiboa, ekarpen-koefiziente horizontalaren % 99raino iritsi daitekeena, Funtsari egindako ekarpena deskontatu ostean.

2027rako guztira 203,16 milioi euroan estimatu diren Egokitzapenerako Funts Orokorraren behin-behineko zenbatekoari egindako ekarpenak, honako hauek dira: (**3. taula**)

3. Taula: EFOari egin beharreko ekarpenak

		2027rako aurreikuspena €
Eusko Jaurlaritza	% 70,81	143.855.984
Aldundiak eta udalak	% 29,19	59.301.740
Araba		9.553.510
Bizkaia		29.870.287
Gipuzkoa		19.877.943
GUZTIRA		**203.157.724**

Egokitzapenerako Funts Orokorraren banaketa honako hau da: (**4. taula**)

4. Taula: EFOtik kobratzekoak, guztira

	2027rako aurreikuspena €
Araba	137.644.995
Bizkaia	0
Gipuzkoa	65.512.729
GUZTIRA	**203.157.724**

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan 2027rako Egokitzapenerako Funts Orokorraren aurreikusitako zenbatekoa **203,2 milioi eurokoa** izatea eta **Arabako (137,6 milioi euro) eta Gipuzkoako (65,5 milioi euro)** lurraldeen artean banatzea erabaki zen.

4/2021 Legeak 2022-2027 aldirako onetsitako metodologiaren arabera, Egokitzapenerako Funts Orokorra bi tarte bereizitan antolatuko dela ezartzen du, eta horien muga bateratuak ez du gainditukо aipatutako legearen 4. artikuluan finkatutako eta banatu beharreko baliabideen % 1,45.

Datu horiekin, Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundien diru-bilketako koefizienteak beraien koefiziente horizontalaren % 99ra iritsi direnez, ez dago Egokitzapenerako Funts Orokorraren bigarren tartea aktibatu beharrik.

EKARPEN-KOEFIZIENTE HORIZONTALAK

Ekarpen-koefiziente horizontalen bitartez egin da erakunde erkideen kargei eta kupoa zehazteko metodologiaren ondoriozko betebeharrei dagokien Foru Aldundien ekarpena. Horiek ez dira aldatuko ekitaldian zehar, eta ekitaldiko ekarpenak likidatu arte aplikatuko dira, hori bera barne.

2027ko ekitaldirako onetsitako ekarpen-koefiziente horizontalak honako hauek dira:

LURRALDEA	**2027**
ARABA	% 16,11
BIZKAIA	% 50,37
GIPUZKOA	% 33,52
GUZTIRA	**% 100,00**

Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistema finantzatzeko Estatutik datozen baliabideen banaketa

Mendetasunari buruzko 39/2006 Legean ezarritako finantzaketa publikoko sistema hiru babes-maila bereizitatik abiatuta egituratzen da: gutxieneko babes-maila eta babes-maila adostua, maila bakoitzari dagozkion zenbatekoak kupoan gutxituz antolatzen direnak, eta babes-maila gehigarria, autonomia-erkidego bakoitzak ezar dezakeena eta bere kontura soilik finantzatuko dena.

Osagarri gisa, eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren (AMAS) kudeaketatik eratorritako betebeharrek izan duten garapena kontuan hartuta, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2025eko apirilaren 10eko bigarren akordioan, bertan ordezkatutako administrazioek balioetsi zuten aurreikusitako estaldura-maila osatu egin behar zela ezarritako betebehar eta helburuak behar bezala betetzeko. Era berean, erabaki zuten Estatuko Administrazioaren konturako finantzaketa euskal administrazioek IMSERSOri ziurtatuko dioten guztizko gastuaren ehuneko 50era iritsiko zela urtero, AMASek kontzeptuen gainean egindako kudeaketagatik eta aipatutako administrazioen artean adostutako metodologiaren arabera.

Finantzaketa osagarri hori zehazteko metodologia eta prozedura 2026ko uztailaren 9ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren erabaki bakarraren bidez onartu zen.

Erabaki horrek nabarmen aldatu zuen Estatuaren konturako finantzaketaren

esparrua Euskadin, eta aurretik zegoen egoera osatu zuen hirugarren finantzaketabide egonkor eta arautu bat ezarri zuen, Ekonomia Itunaren sistemaren arabera.

Aurrekoa kontuan hartuta, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, honako akordio hau hartu du:

1. *Erakunde arteko lantaldea eratzea, Euskadin Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren finantzaketarako Estatuaren zuzkidurei dagozkien baliabideen banaketa aztertzeko, 2026ko uztailaren 9ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan Sistemaren finantzaketa osagarriari buruz lortutako akordioa kontuan izanda. Lantaldearen helburua izango da etorkizunean Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren bilera batean onartzeko akordio-proposamen bat prestatzea.*
   Lantaldea honako hauek osatuko dute: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak izendatutako bi ordezkarik, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako bakoitzak izendatutako bina ordezkarik.
2. *Behin-behinean, eta lehenengo puntutan aurreikusitako akordioa onartu arte, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2026ko uztailaren 9ko akordio bakarrean ezarritako Estatuaren konturako finantzaketa osagarriaren banaketa adostutako mailari dagokion modu berean egingo da.*
3. *Lantaldeak 2027ko urriko Herri Dirubideen Euskal Kontseilua bildu baino lehen aurkeztu beharko du bere erabaki-proposamena.*

FINANTZEN LURRALDE KONTSEILUAK

Udal Finantzaketarako Foru Funtsak

Lurralde bakoitzeko Finantzen Lurralde Kontseiluen bileretan, tokiko partaidetza zehaztu da zerga itunduen diru-bilketa aurreikustean, Udal Finantzaketarako Foru Funtsak izenekoetan: Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa (**TEFFF**) Araban, **Udalkutxa** Bizkaian eta Udal Finantzaketarako Foru Funtsa (**UFFF**) Gipuzkoan.

Hiru lurraldeetako Finantzen Lurralde Kontseiluetan emandako informazioaren arabera, Udal Finantzaketarako Foru Funtsen **2026ko likidazioaren aurreikuspena** honako hau da: (**5. taula**)

5. Taula

	2026ko aurrekontua € (1)	2026rako aurrelikidazioa € (2)	Aldea € (2)-(1)	% (2)/(1)
Araba - TEFFF	318.581.565	322.651.746	4.070.181	% 1,28
Bizkaia - Udalkutxa	1.195.498.361	1.205.698.466	10.200.105	% 0,85
Gipuzkoa - UFFF	721.207.239	730.340.472	9.133.233	% 1,27
GUZTIRA	**2.235.287.165**	**2.258.690.684**	**23.403.519**	**% 1,05**

2026an Foru-funtsak **2.250 milioi euro gainditzea** aurreikusten da hiru lurralde historikoetarako, hasieran aurreikusitako konturako ekarpenak baino % 1,05 gehiago. Aurrelikidazioaren datuek ekitaldiko konturako ekarpenetan ondoriorik ez dute, eta 2027ko otsailean egingo den likidazioaren zain egon beharra dago. Dena den, datu horiek ezagutzea erabakigarria da aurrekontu-kudeaketa hobea egin ahal izateko. Eranskinetan, udal bakoitzerako banakako kopuruak kontsulta daitezke.

Udal Finantzaketarako Foru Funtsen **2027. urterako aurrekontu-aurreikuspena** honako hau da: (**6. taula**)

6. Taula

	2026ko aurrekontua € (1)	**2027rako aurrekontua € (2)**	**Aldea € (2)-(1)**	**% (2)/(1)**
Araba - TEFFF	318.581.565	341.271.687	22.690.122	% 7,12
Bizkaia - Udalkutxa	1.195.498.361	1.287.142.980	91.644.619	% 7,67
Gipuzkoa - UFFF	721.207.239	772.597.811	51.390.572	% 7,13
GUZTIRA	**2.235.287.165**	**2.401.012.478**	**165.725.313**	**% 7,41**

2027rako Foru Funtsetarako aurreikusitako 2.401 milioi euroek, oro har, aurreko ekitaldiko aurrekontuekiko % 7,41eko igoera eragin dute, eta % 6,3ko hazkundea, 2026ko aurrelikidazioarekin alderatuta.

Udalek 2027rako Udal Finantzaketarako Foru Funtsen aurreikuspena erabiliko dute hurrengo ekitaldiko aurrekontuak egiteko. Eranskinetan udal bakoitzerako banakako kopuruak kontsulta daitezke.

Arabako toki-erakundeak

Arabako Toki Administrazio eta Finantzen Lurralde Kontseiluan (ATAFLK), urriaren 22an egindako bileran, 2026ko aurrelikidazioaren eta TEFFFren 2027rako aurrekontu-aurreikuspenaren berri eman zuten.

2026KO AURRELIKIDAZIOA

Arabako Toki Administrazio eta Finantzen Lurralde Kontseiluaren datuen arabera, 2026ko likidazio-aurreikuspena **322,7 milioi eurokoa** da, hots, **% 1,28ko igoera**, hasierako aurrekontuarekin alderatuta. (**7. taula**)

7. Taula

	2026ko aurrekontua € (1)	**2026rako aurrelikidazioa € (2)**	**Aldea € (2)-(1)**	**% (2)/(1)**
Araba - TEFFF	318.581.565	322.651.746	4.070.181	% 1,28

2026ko itxierako aurreikuspen-datuak 2027ko otsailean berretsiz gero, **322,7 milioi eurokoa** izango litzateke, hau da, **% 1,28ko** igoera, 2026ko konturako ekarpenekin alderatuta. Ekitaldi honetan, 5.168.000 euro gehigarri gehitu eta finkatu dira TEFFFn, Foru Aldundiaren aurrekontuak ematen duen funts osagarritik datozenak.

Gizarte Zerbitzuen Funtsari dagokionez, itxierako aurreikuspena **2.821.000 eurokoa** da.

2027RAKO AURREKONTUA

TEFFFren 2027rako aurrekontu-aurreikuspena **341,3 milioi eurokoa** da; beraz, 2026ko hasieran aurreikusitako aurrekontu-aurreikuspena baino **% 7,12 handiagoa**. (**8. taula**)

8. Taula

	2026ko aurrekontua € (1)	2027rako aurrekontua € (2)	Aldea € (2)-(1)	% (2)/(1)
Araba - TEFFF	318.581.565	341.271.687	22.690.122	% 7,12

2027rako TEFFFren aurrekontu-aurreikuspena **341,3 milioi eurokoa** da, hau da, **% 7,12ko** igoera, aurreko ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuta, eta **% 5,77eko** igoera, 2026ko aurrelikidazioarekin alderatuta.

Era berean, aurreikusita dago Lurralde Historikoko udalek Gizarte Zerbitzuetako Funtsetik 2.819.250 euro jasoko dituztela 2027an. Funts hori EAEko baliabideen banatzeko metodologiaren parte da 2022tik.

OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANA ETA OBRA TXIKIAK EGITEKO LAGUNTZEN PROGRAMA

Planei eta programei buruzko informazio hau dugu: (**9. taula**):

9. Taula

	2026ko aurrekontua € (1)	2026rako aurrelikidazioa € (2)	2027rako aurrekontua € (2)
OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANA	21.872.386,00	22.149.374,00	23.416.397,00
OBRA TXIKIEN GAUZATZEA	2.951.036,00	2.988.408,00	3.159.356,00

Bizkaiko udalak

Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluan, urriaren 20an egindako bileran, 2026ko aurrelikidazioaren eta Udalkutxaren 2027rako aurrekontu-aurreikuspenaren berri eman zen.

2026KO AURRELIKIDAZIOA

Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluaren datuen arabera, 2026ko likidazio-aurreikuspena **1.205,7 milioi eurokoa** da, hots, hasierako aurrekontua baino **% 0,85 handiagoa**. (**10. taula**)

10. Taula

	2026ko aurrekontua € (1)	**2026rako aurrelikidazioa € (2)**	**Aldea € (2)-(1)**	**% (2)/(1)**
Bizkaia - Udalkutxa	1.195.498.361	1.205.698.466	10.200.105	% 0,85

2026ko itxierako aurreikuspen-datuak 2027ko otsailean berretsiz gero, udalek **10,2 milioi euro** jasoko lituzkete. (Ikusi II. eranskina)

Gizarte Zerbitzuen Funtsari dagokionez, itxierako aurreikuspena **11,4 milioi eurokoa** da. Funts hori mendekotasun-irizpideen arabera banatzen da, eta Udalkutxa funtsarekin batera ere likidatuko da. (Ikusi III. eranskina)

2027RAKO AURREKONTUA

Udalkutxak **1.287,1 milioi euroko** aurrekontu-aurreikuspena izango du 2027rako, 2026rako aurreikusitako aurrekontua baino % 7,67 handiagoa. (**11. taula**)

11. Taula

	2026ko aurrekontua € (1)	**2027rako aurrekontua € (2)**	**Aldea € (2)-(1)**	**% (2)/(1)**
Bizkaia - Udalkutxa	1.195.498.361	1.287.142.980	91.644.619	% 7,67

Udalkutxaren 2027rako aurrekontu-aurreikuspena **1.287 milioi eurokoa** da, hau da, **% 7,67ko** igoera, 2026ko aurrekontuarekin alderatuz, eta **% 5,77ko** igoera, 2026ko aurrelikidazioarekin konparatuz. (Ikusi II. eranskina)

Era berean, lurralde historikoko udalek, 2027an, Gizarte Zerbitzuen Funtsetik 12,1 milioi euro jasoko dituztela aurreikusita dago. (Ikusi III. eranskina)

ZERGA ARAUAK

2027rako egonkortze-helburuak finkatzeari dagokionez, zorra eta gastuaren erregela, Finantzen Lurralde Kontseiluak ondoko ERABAKI proposamena hartu zuen:

Honako helburu hauek ezartzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeek 2027an bete ditzaten:

Aurrekontu-egonkortasunari buruzko helburua, Finantzaketa-ahalmena (+) Finantzaketa-beharra (-) (Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistema)

	2027
Bizkaiko toki-erakundeak	0,0

Zor publikoari buruzko helburua, zor publiko finantzarioaren gehieneko portzentajea sarrera ez-finantzarioen gainean (Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistema),

	2027
Bizkaiko toki-erakundeak	% 60

Gastu-araua, gastu ez-finantzarioen gehieneko aldaketaren portzentajea (Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistema), zorraren interesak eta Europar Batasunaren edo beste administrazio publiko batzuen edo hirigintza-kudeaketaren funts finalistekin finantzatutako gastua kenduta; kasu guztietan, 2027koak 2026koekin alderatuta.

	2027
Bizkaiko toki-erakundeak	% 4

EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundiak, 2027. urterako Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauan, Gizarte Ekintza Sailari jakinarazi behar dioten informazioa arautzea aurreikusi du, hau da, lurralde historikoko toki-erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistema finantzatzeari buruzkoa.

Era berean, erregulazio berean honako atxikipen hau jasotzea aurreikusten du:

Foru Aldundiak, Gizarte Ekintzako Foru Departamentuak eskatu ondoren, Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren ***gutxieneko babes-maila gisa jasotzen dituzten ordainketen % 40 atxikiko die udalerri eta mankomunitateei****, horiek aurreko 2. idatz-zatian aipatutako informazioa bidaltzen ez dutenean. Informazioa jaso ondoren, Gizarte Ekintza Sailaren ziurtagiriaren arabera, atxikitako zenbatekoa ordainduko da.*

Aurreko paragrafoan aipatutako atxikipena Udalkutxan egiten ari denari gehituko litzaioke, baldin eta toki-erakundeek ez badiote ekonomiari eta aurrekontuari buruzko informazioa bidaltzen Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako Sailari.

Gipuzkoako udalak

Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseiluan, urriaren 16an egindako bileran, 2026ko aurrelikidazioaren eta Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren (UFFF) 2027rako aurrekontu-aurreikuspenaren berri eman zen.

2026KO AURRELIKIDAZIOA

Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseiluaren datuen arabera, **730,3 milioi eurokoa** da likidazio-aurreikuspena, hau da, hasierako aurrekontua baino % 1,27 gehiago. (**12. taula**)

12. Taula

	2026ko aurrekontua € (1)	2026rako aurrelikidazioa € (2)	Aldea € (2)-(1)	% (2)/(1)
Gipuzkoa - UFFF	721.207.239	730.340.472	9.133.233	% 1,27

2026rako itxiera-aurreikuspenaren arabera, aurrelikidazioa **730 milioi eurokoa** da, hau da, 9,1 milioi euro gehiago ekitaldian jasotako konturako ekarpenak baino. (Ikusi IV. eranskina).

2027RAKO AURREKONTUA

UFFFren 2027rako aurrekontu-aurreikuspena **772,6 milioi eurokoa** da; hau da, hasieran 2026rako aurreikusitako aurrekontua baino % 7,13 gehiago. (**13. taula**)

13. Taula

	2026ko aurrekontua € (1)	2027rako aurrekontua € (2)	Aldea € (2)-(1)	% (2)/(1)
Gipuzkoa - UFFF	721.207.239	772.597.811	51.390.572	% 7,13

UFFFren 2027rako aurrekontu-aurreikuspena **772,6 milioi eurokoa** da, hau da, **% 7,13ko** igoera, 2026ko aurrekontuarekin alderatuz, eta **% 5,8koa**, 2026ko aurrelikidazioarekin konparatuz.

ZERGA ARAUAK

Finantzen Lurralde Kontseiluak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak emandako jarraibidea onartu egin zuen, hau da, Gipuzkoako toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa. Jarraibide horretatik magnitude hauek ateratzen dira:

Aurrekontu-egonkortasunari buruzko helburua, Finantzaketa-ahalmena (+) Finantzaketa-beharra (-) (Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistema)

	2027
Gipuzkoako toki-erakundeak	0,0

1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan jasotako erakundeentzako zor publikoaren helburua hauxe izango da: 2027ko abenduaren 31n duten zor bizia ez izatea epe luzeko kreditu-eragiketak baimentzearen arloan indarrean dagoen araudian ezarritako aurreko ekitaldian likidatutako diru-sarrera arrunten muga baino handiagoa.

	2027
Gipuzkoako toki-erakundeak	% 110

1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan jasotako erakundeentzako gastu-arauaren helburua hauxe izango da: 2026 eta 2027 arteko gastu konputagarriaren aldaketa ez izatea % 4 baino handiagoa.

Udal Finantzaketako Foru Funtsak, biztanleko, eurotan adierazita

Ondorengo grafikoko datuak ulertzeko, puntu hauek hartu behar dira kontuan:

1. **Foru Funtsen likidazioetatik eratorritako datuak** dira, eta, beraz, ez dira kontuan hartu lurralde bakoitzean likidazio negatiboak itzultzeko akordioak.

2. **Biztanleria-iturria: INE**. Biztanleria-zifrak dagokion ekitaldiko urtarrilaren 1eko zifra ofizialak dira. 2026ko eta 2027ko ekitaldietarako, 2025eko urtarrilaren 1eko biztanleriaren zifra ofizialak hartu dira kontuan.

3. Gipuzkoan 2011n, hiru lurraldeetan 2012an eta 2013an, Bizkaian 2014an, eta Araban 2015ean eta 2016an egindako likidazioetan **berreskuratutako opor fiskalak** jaso dira. Era berean, 2013ko likidazioan jasota dago udalei dagokien zenbatekoa, Eusko Jaurlaritzak **Gipuzkoari (7,8 milioi euro) eta Arabari (2,2 milioi euro)** balantzeak eguneratzearen ondorioz bilketagatik ordaintzen dien **konpentsazioaren** kontzeptu gisa.

4. 2017ko likidazioetan, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak **lurralde historikoei emandako konpentsaziotik** eratorritako kopuruak jasota daude, Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoak hartutako erabakiak ereduan sartzeak Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeetan izan dezakeen eragina neutralizatzeko.

5. 2018ko ekitaldian sartuta dago Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiaren artean **Arabari (1.613.112 euro) eta Gipuzkoari (4.041.029 euro)** ordaindu zieten **aparteko konpentsazioa**.

6. 2022tik aurrera, Gizarte Zerbitzuen Funtsa sartu da.

7. 2023ko eta 2024ko ekitaldietan, kreditu- eta energia-erakundeen aldi baterako kargak sartu dira.

8. Lurralde bakoitzak baliabide erabilgarrien **ehuneko desberdina** bideratzen du udal finantzaketarako:

   » 2021era arte honako hauek izan ziren:


   TEFFFrena % 52,3koa izan zen eta 2018tik aurrera % 52,8koa (gainerako % 3,7 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana da, eta gainerako % 0,5, berriz, euro/biztanleko ratio kalkuluan kontuan hartzen ez diren Obra txikien eta bidexken plana da). **Udalkutxarena % 56koa da**, eta **Gipuzkoako UFFFrena % 58koa** (2011n % 57koa, 2012an % 57,5ekoa eta 2013az geroztik % 58koa)

   » Baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologiari buruzko urriaren 7ko 4/2021 Legea onartu ondoren, 2022-2026 aldian aplikatu beharrekoa, lurralde bakoitzean banatu beharreko gutxienekoa baliabide erabilgarrien % 39,2an zehaztu da, eta , 2022tik aurrerakoak honako hauek dira:

ARABA (TEFFF)		**% 39,84**
TEFFF	% 36,66	
Obra eta Zerbitzuen Foru Plana	% 2,52	
Obra txikiak eta auzo harremanak	% 0,34	
Gizarte Zerbitzuen Zorro Funtsa	% 0,32 (*)	
BIZKAIA (UDALKUTXA)		**% 39,66**
UDALKUTXA	% 39,29	
Gizarte Zerbitzuen Zorro Funtsa	% 0,37	
GIPUZKOA (UFFF)		**% 39,96 (**)**

(*) Ehunekoa aldatu daiteke urte batetik bestera.
(**) Gizarte Zerbitzuen Zorro Funtsak osatzen du.

4. Grafikoa: Udal Finantzaketarako Foru-funtsen likidazioa (euro/biztanleko)



	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025	2026 (aurrelik)	2027 (aurrek)
ARABA	516	539	585	560	599	617	649	698	710	620	741	780	824	795	914	951	1.006
BIZKAIA	634	656	634	653	641	664	703	756	777	661	789	848	905	901	995	1.043	1.114
GIPUZKOA	504	539	543	586	610	626	651	714	732	663	802	812	854	871	958	996	1.053
EAE	575	600	597	618	625	645	678	734	752	656	786	826	876	875	971	1.014	1.077

I. ERANSKINA

TEFFF – Arabako udalerriak

TEFFFren banakako kopuruak. Eurotan

Udala	2026ko konturako ekarpenak (1)	2026rako aurrelikidazioa (2)	Aldea (2)-(1)	% (2)/(1)	2027rako behin-behineko hasierako partaidetzaren aurreikuspena (3)	Aldea (3)-(1)	% (3)/(1)
AGURAIN/SALVATIERRA	4.348.626,23	4.405.188	56.562	% 1,30	4.660.303	311.677	% 7,17
ALEGRÍA-DULANTZI	2.142.479,20	2.170.207	27.728	% 1,29	2.295.270	152.791	% 7,13
AMURRIO	8.067.882,67	8.173.077	105.194	% 1,30	8.647.541	579.659	% 7,18
AÑANA	127.401,39	128.791	1.390	% 1,09	135.059	7.658	% 6,01
ARAMAIO	1.055.342,44	1.068.859	13.516	% 1,28	1.129.823	74.480	% 7,06
ARMIÑON	120.961,06	122.269	1.308	% 1,08	128.166	7.205	% 5,96
ARRAIA-MAEZTU	383.420,59	388.162	4.741	% 1,24	409.546	26.125	% 6,81
ARRATZUA-UBARRUNDIA	738.699,95	748.082	9.382	% 1,27	790.398	51.699	% 7,00
ARTZINIEGA	1.382.463,27	1.400.256	17.793	% 1,29	1.480.508	98.045	% 7,09
ASPARRENA	1.187.301,67	1.202.546	15.245	% 1,28	1.271.305	84.004	% 7,08
AYALA/AIARA	1.525.286,14	1.544.968	19.682	% 1,29	1.633.741	108.455	% 7,11
BAÑOS DE EBRO/MAÑUETA	211.179,76	213.665	2.485	% 1,18	224.872	13.692	% 6,48
BARRUNDIA	416.204,78	421.375	5.171	% 1,24	444.697	28.492	% 6,85
BERANTEVILLA	251.067,33	254.077	3.010	% 1,20	267.654	16.587	% 6,61
BERNEDO	252.644,98	255.676	3.031	% 1,20	269.346	16.701	% 6,61
CAMPEZO/KANPEZU	610.135,75	617.842	7.706	% 1,26	652.601	42.465	% 6,96
ELBURGO/BURGELU	296.826,29	300.435	3.609	% 1,22	316.714	19.887	% 6,70

Udala	2026ko konturako ekarpenak (1)	2026rako aurrelikidazioa (2)	Aldea (2)-(1)	% (2)/(1)	2027rako behin-behineko hasierako partaidetzaren aurreikuspena (3)	Aldea (3)-(1)	% (3)/(1)
ELCIEGO	667.141,76	675.585	8.443	% 1,27	713.666	46.524	% 6,97
ELVILLAR/BILAR	235.180,28	237.979	2.798	% 1,19	250.600	15.420	% 6,56
ERRIBERAGOITIA/ RIBERA ALTA	407.149,85	412.201	5.052	% 1,24	434.986	27.836	% 6,84
HARANA/VALLE DE ARANA	122.642,46	123.971	1.329	% 1,08	129.966	7.323	% 5,97
IRUÑA OKA/IRUÑA DE OCA	1.970.593,56	1.996.101	25.508	% 1,29	2.111.152	140.558	% 7,13
IRURAIZ-GAUNA	254.328,45	257.381	3.053	% 1,20	271.151	16.823	% 6,61
KRIPAN	139.166,19	140.710	1.544	% 1,11	147.672	8.505	% 6,11
KUARTANGO	216.575,28	219.134	2.558	% 1,18	230.673	14.098	% 6,51
LABASTIDA/BASTIDA	1.292.615,16	1.309.231	16.616	% 1,29	1.384.177	91.562	% 7,08
LAGRÁN	98.503,96	99.518	1.014	% 1,03	104.090	5.586	% 5,67
LAGUARDIA	1.196.819,39	1.212.186	15.367	% 1,28	1.281.497	84.677	% 7,08
LANCIEGO/LANTZIEGO	476.659,91	482.614	5.954	% 1,25	509.471	32.811	% 6,88
LANTARÓN	441.461,10	446.963	5.502	% 1,25	471.777	30.316	% 6,87
LAPUEBLA DE LABARCA	584.577,52	591.942	7.365	% 1,26	625.160	40.583	% 6,94
LAUDIO/LLODIO	15.741.223,42	15.946.730	205.507	% 1,31	16.873.643	1.132.419	% 7,19
LEGUTIO	1.377.958,30	1.395.705	17.747	% 1,29	1.475.749	97.791	% 7,10
LEZA	174.027,11	176.026	1.999	% 1,15	185.040	11.013	% 6,33
MOREDA DE ÁLAVA/ MOREDA ARABA	155.889,51	157.652	1.762	% 1,13	165.601	9.711	% 6,23
NAVARIDAS	160.894,95	162.723	1.828	% 1,14	170.966	10.071	% 6,26
OKONDO	876.461,70	887.642	11.180	% 1,28	938.070	61.608	% 7,03
OYÓN-OION	2.467.059,02	2.499.033	31.974	% 1,30	2.643.250	176.191	% 7,14
PEÑACERRADA-URIZAHARRA	161.421,66	163.259	1.837	% 1,14	171.544	10.123	% 6,27
RIBERA BAJA/ ERRIBERABEITIA	1.014.132,32	1.027.127	12.994	% 1,28	1.085.737	71.604	% 7,06

Udala	2026ko konturako ekarpenak (1)	2026rako aurrelikidazioa (2)	Aldea (2)-(1)	% (2)/(1)	2027rako behin-behineko hasierako partaidetzaren aurreikuspena (3)	Aldea (3)-(1)	% (3)/(1)
SAMANIEGO	229.004,24	231.722	2.718	% 1,19	243.979	14.975	% 6,54
SAN MILLÁN/ DONEMILIAGA	337.396,73	341.537	4.140	% 1,23	360.209	22.813	% 6,76
